

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Independentismoa olatu sozialaren aurrean

Pasa den igandeko Gure Esku Dagoren giza kateak erabakitzeko eskubidearen aldarria eztabaida politikoaren erdigunera ekarri du noiz eta Gasteizko Parlamentuan estatus politiko berriaren oinarriak finkatzen ari diren momentuan, mobilizazio sozialari dagokionez ezohikoa izan den urte politikoa amaiera bidean jarriz bidenabar. Eguraldiak kontrakoa dion arren udan sartuko baikara datorren astean, urte politikoaren balantzea osatu eta hurrengo proiektatzen hasteko sasoian.

Urte politiko hau zerbaitek ezaugarritu badu astindu gaituzten olatu sozialek egin dutela esango nuke. Horiek eta ETaren zikloaren itxierak, ezbairik gabe. Kaleak bete egin dira, behin eta berriro. Katalanak, presoak, emakumeak, pentsioak, Manada, Altsasu, erabakitzeko eskubidea... Kuantitatiboki zein kualitatiboki ezohikoa da euskal gizartea adierazten ari den pulstu soziala. Orriotan esana dut jada baina errepikatuko dut beste behin ere: uste dut pulstu sozial hain indartsu honen oinarrian zer dagoen ondo irakurri behar dugula. Garaiko erreakzio sozial baten aurrean gaudela esango nuke, egiturazkoa den krisiaren testuinguruan promesa liberalaren hausturak eragindako frustrazioak, haserreak eta beldurrak adierazten ari dela gizartea, neurri handi batean. Estatuak erantzuteko gai ez diren galdera berriak pausatu dira.

Izango al da proiektu independentista gizartearen itxaropen bide? Badu testuinguru bat bere alde, inoiz ez bezala –Eskozia, Ipar Irlanda, Korsika, Katalunia, nazio-estatuen krisia–, baina tokian toki egiteko gai denaren arabera izango da bere arrakasta, zalan-tzarik gabe; eta horrek gauza askotan asmatzea eskatzen du, tartean gizarte baldintzak ondo irakurtzen. Gaurkoan independentismoak pulstu sozial honen aurrean izan beharreko kokapenari buruzko gogoeta labur bat dakart lerrootara.

Ezin daiteke Subjektu independentista –horrela hitz larritz idatzita– modu prefabrikatuan eraiki. Independentismoa instrumentala izango da edo ez da izango, herritarren aspirazioei erantzuna emateko balioko du edo ez da izango. Gizartea mugitzen ari da, subjektu independentista mugimendu horren baitan artikulatuko da, ez hortik kanpo.

Zein fasetan gaude? Erabakitzeko eskubidea ardatz harturik gizartean dauden identitate sozial ezberdinak euskal eskala demokratiko baten errelatora erakartzeko garaian gaudela esango nuke. Eta nago urte honetan aurrerapauso kualitatiboak eman direla zentzu horretan, gabeziak gabezi, eta kontraesanak kontraesan: Martxoaren 8an, mugimendu feministak lema bat eta bakarrarekin –“Emakumeok planto!”– bete zituen kaleak Euskal Herri osoan; maiatzaren 26an pentsio duinak aldarrikatu ziren Hegoaldeko lau hiriburuetan; Altsasuko gazteen kontrako erasoari modu eredugarrian erantzun zaio, autoritarismoaren kontrako olatu sozial bat altxatuz Espainiako sistema politikoa zuzenki interpelatu duena, eta Nafarroako erregimenaren datozen hilabeteetako agenda soziala hankaz gora jarri duena bide batez; Gure Esku Dagoren giza katearen arrakasta kuantitatiboa bezainbat da kualitatiboa, erabakitzeko eskubidea agenda sozialarekin lotzen asmatu duelako, neurri batean.

Konfrontazio ardatz hauek –eta beste batzuk– elikatzen jarraitzeaz batera programa politiko bat behar du independentismoak fase politiko honetan, erantzunak emango dituen gizartetik pausatzen ari diren galderei. Estatus politiko berrien eztabaida hortxe kokatzen da, hain zuzen ere. Aste honetan Jule Goikoe-txeak Plaza Hutsean ondo esan bezala, herrigintzarik gabeko estatugintzarekin ez baitago demokratizazio prozesurik, baina estatugintzarik gabeko herrigintzarekin ezta ere –<https://goo.gl/xEPq1U>–. •

Gizartea mugitzen ari da; subjektu independentista mugimendu horren baitan artikulatuko da, ez hortik kanpo

ARETXABALETAKO TOMATEA

Ahoz aho memoria egin duen tomatea

 **ONDAREA** / Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Marc Badal Pijoan (Bartzelona, 1976) kataluniarak «Aretxabaletako tomatea» liburua idatzi du, Cristina Enea Fundazioaren Haziera hazi artxiboaren eskutik, Telekoria bildumaren baitan. Marta Barba Gasso antropologia ikertzailearekin batera bi urteko ierketa egin du liburua idazteko. Aretxabaletako tomatearen historia jasotzen du lanak eta fruitu horren bueltan eraiki diren hainbat mito eta kondaira desestaltzen ditu.

Mundu mailako produktioan hazkuntza azaleran bigarren tokia betetzen du barazkien artean tomateak, soil-soilik patataren atzetik. Hala, mundu osoko su-

kaldaritzan preziatua da sarri barazki bezala identifikatzen den fruitu gorria, eta baratze orotan aurkituko dugu, umezurtz geratuko bailitzake bera gabe, tomatea izan ohi baita baratzeako barazkirik kutun eta zainduena. Txina da egun munduko tomate ekoizlerik handiena, eta

Monsanto enpresa multinazionalak dauka nazioarteko tomate-hazi ugariren monopolioa. Barazki hibridoak taxutu dituzten enpresek talaia larrian utzi dituzte tokiko barietateak, produkzioaren izenean haziak homogeneizatu eta genetikoki moldatutako barazki hibridoak mundura zabaldu baitituzte tokian tokiko ekoizpen pertsonalizatuak irentsiz. Eskala handiko ekoizpenek distiraz eta kolorez jantzi dituzte supermerkatuetako apalategiak, baina zaporez eta memoriaz erantzi tomateak. Baita Euskal Herrian ere: «Egun, kantaauriar isurialdean landatzen diren tomateen ia %100 barietate bakarrekoak dira, Jack izenekoak. Hibridoak da, eta Monsantoena da. Gisa horretakoak di-

Aretxabaletako tomateak arrosa kolorekoak, gozoak, haragitsuak eta emankorrak dira.
GAUR8



ra Eusko Labeldun tomate guztiak», azaldu du Marc Badalek.

Alta, bada multinazional erraldoien gerizpean, haien beso luzeetatik atzemanekin hazten den tomate espezie bat, arrosa kolorekoa, orain hiru hamarkada “Atxurdinen tomatea”, “mojaren tomatea” eta “tomate mozkorra” izenekin ezagutu zutena Debagoienan; eta, egun, “Aretxabaletako tomatea” markapean Euskal Herrian eta haratago famatu egin dena. Tomate barietate horren inguruko liburua idatzi du Marc Badal Pijoan Cristina Enea Fundazioko Haziera proiektuaren koordinatzaileak. Azken bi urteetan Marta Barba Gasso antropologoarekin batera egindako ikerketaren emaitza jaso du “Aretxabaletako tomatea. Bioaniztasuna,

lurraldea eta jakintza partekatua” izenburua duen lanean.

Bartzelonan sortu zen Badal, baina hamar urte daramatza Euskal Herrian bizitzen. Egun, Cristina Enea Fundazioko Haziera hazi artxiboaz ardura-tzen da. 2013an hasi zuen Cristina Eneak haziak herritarren esku uzteko bidea. Fundazioak Donostiako Cristina Enea parkean duen Ingurumen Baliabideen Etxean barazki ezberdinen hazi potoak dituzte, eta, Badalek dioenez, «edonork» har ditzake, nork bere baratzean ugaltzeko helburuarekin.

Haziera proiektutik sustatu da Telekoria liburu bilduma, zeinak, jakintza kolektiboaren bitartez, haziak protagonista dituzten lanak zabaldu asmo baituen. 2016an “Bidaia koadernoak. Haziei buruzko pa-

sarte eta ohar historikoak” liburua argitaratu zuten, eta aurtengo maiatzean kaleratu dute bildumaren azkenengo lana: “Aretxabaletako tomatea”.

TELEKORIA

Zenbait landarek beren haziak sustraitu daitezten lurralde berrietatik zehar sakabanatzeko duten gaitasunari esaten zaio telekoria. Telekoriaren bidez, edo nolanahi dela ere, ustez Peruko Andeatatik Mexikora mugitu ziren gaur egungo tomatearen gurasoen haziak, eta handik Europara, kolonoek ekarrita. Hasiera batean, ostrazismora kondenatuta egon zen europarrentzat arraroegia zen fruitua, jatorrian egungoa baino txikiagoa eta berde-horia. Pozoitsutzat eta arrisku-

Marc Badal Pijoanek, Cristina Enea Fundazioko Haziera proiektuaren koordinatzaileak, liburua idatzi du Aretxabaletako tomatearen inguruan.
GAUR8

tsutzat jo zuten, eta Espainian tomatea kontsumitzen hasi zirenei okurritu ere ez zitzairen egingo gordinik jaterik.

Kolonizazioaren ostean tomatea Europara iritsi bazen ere, XIX. mendearen bigarren erdira arte ez zituen historiako liburuak konkistatu, eta barazki honen historiako hiruzpatalau mende idatzi gabe geratu dira, bat-batean munduko barazkirik kontsumituena bilakatu den arte.

«Ez dakigu ezer nekazaritzaren historiari buruz. Ez dugu laborarien eta landa eremuko klase xehearen inguruko informaziorik; historia beste batzuek idatzi zuten. Tomatearen kasua oso adierazgarria da: badakigu Erdialdeko Amerikatik sartu zela Europara, baina ez dakigu nola mugitu ziren tomate-haziak Hego Amerikatik Mexikora. Gutxiasko hiru mende igaro ditu ia inon agertu gabe, eta, bat-batean, edonon aurkitu daiteke. Ehunka tomate barietate sortu ziren Europan, eta ez dakigu nola mugitu diren hazi horiek mundura. Euskal Herrira iristean, tomatea gaztelauen eta ijitoen jakitzat jotzen zen».

Historiak ahaztu izanagatik ere, tomatea gehien ekoizten den bigarren barazkia izatera iritsi da. XIX. mendetik aurrera hasi zen landare exotikoa ohikoa izaten Europan, eta hortik aurrera kontsumoa eta ekoizpena izugarri hazi dira. FAO Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen datuen arabera, 2016an, munduko tomate ekoizpena 117 tonatik gorakoa izan zen, eta 1961 eta 2009 artean munduko produkzioa bost aldiz biderkatu zen. Tomate haziak, munduko barazki hazien merkatuaren erdia izatera iritsi ziren, 1.600 milioi dolarreko ba-



lioarekin. Hala, herri-xehearen eta laborarien jaki izatetik, nazioarteko sukaldaritza maisuen errezetetan eta egunero-ko dietan funtsezko elikagaia izatera pasatu da; entsaladatik Kataluniako *pa amb tomàquet*-era, ketchup saltsatik Italiako pizzara.

Tomatearen hazien ozeanoaz haraindiko bidaiaren ondorioz landarea Euskal Herrian betikotu zen bezala, ezinbestean betikotu ziren berau lantzeko estrategiak eta tradizioak. Ezin jakin nola mugitu ziren laboreak eta landarearen espezie desberdinak nazioartean, nola landu diren han-hemen, baina bada gertuagoko tradizioa duen adibiderik: Aretxabaletako tomatea. Izen-abizenen eta kondairen marasma sarean endredatuta egon da barietate honen historia, harik eta Marta Barbak eta Marc Badalek mataza askatu duten arte.

JAKINTZA PARTEKATUA

Aretxabaletako tomatearen zabalkundea lankidetzatik eta ezagutzaren partekatzetik erein da. Izen-abizenak dituen historia da, eta norbanakoen eta nekazaritza ekologikoan lan egiten duten elkarteen setari esker erdietsi du gaur duen sona. Aretxabaletako tomatearen historia deslotzen hasteko ezinbesteko heldulekua Koldo Zubizarreta da. Aretxabaletako Izurieta Azpi auzoko baratze txiki batean tomateok landatu zituen 80ko hamarkadaren bukaeran, Kurtzebarri mendiaren begiradapean; industriak herriko baratzak okupatuta zituenean, nekazariak fabriketarako exodoa egina zutenean eta horrek tokiko barazkien aniztasuna eta biokultura bera jada maiztuta zituenean.



Baina baratza txiki horretan hazitako fruitu arrosa-kolorekoak, gozoak, haragitsuak eta emankorrek gaztearen jakin-nahia piztu zuen. Baliteke, Koldo Zubizarretatik ez baltz, Aretxabaletako tomatea

egun ezezaguna izatea, edo are, espeziea bera desagertuta egotea.

«Koldo Zubizarretak nekazaritza ekologikoko tailer batera eraman zituen tomateak, Antzuolako Lapatza baserrira.

Koldo Zubizarretak Aretxabaletako Izurieta Azpi auzoko baratze txiki batean tomateok landatu zituen 80ko hamarkadaren bukaeran, Kurtzebarri mendiaren begiradapean

Nekazariak fabriketarako exodoa egina zuten eta tokiko barazkien aniztasuna arriskuan zen. Fruitu arrosa-koloreko, gozo, haragitsu eta emankorrek atentzioa eman zuen

Bertan ezagutu zituen Maje Gorritxo eta Tomas Larrañaga», azaldu du Marc Badalek. Hala, Koldo Zubizarretak Aretxabaletako tomatea Lapatza baserrira eraman zuenetik, barietatea eskuz esku edota ahoz aho zabaldu da Euskal Herriko baratzetan gaur arte. Bide horretan, berebiziko garrantzia izan dute ekoizle txiki ekologikoek eta nekazaritza elkarteek: Ekonekazaritza fundazioak, Biolurrek, Neikerrek, ENEEK elkarteak eta Hazi Sareak, besteak beste.

Marc Badal eta Marta Barba Aretxabaletako landarearen zabalkundean eragin zuzena izan duten protagonistekin

Liburua salmenta gune hauetan aurkitu daiteke oraingoz: Aretxabaletako kultur etxean, Donostiako Cristina Enea parkeko Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostiako Kaxilda liburu dendan eta Iruñeko Katakrahen. GAUR8

bildu dira bi urtez, baina tomate honen haziak Koldo Zubizarretaren eskutara iritsi ostean gertatu zenaren jakitun ziren kataluniarrak.

Istorio honetan, bi zati bereizten ditu Badalek: «historia eta prehistoria». Hots, Koldo Zubizarretak hazia erein ostekoa historia litzateke, baina hazi horiek gazte aretxabaletarrarengana iritsi aurrekoa ezezaguna zen, eta hori azaldu du liburuan.

80ko hamarkadan, barietate hura inork ez zuen ezagutzen “Aretxabaletako tomatea” izenarekin. Herri-kondairek eta zurrumurruek sortutako beste izendapen batzuk jaso zituen

tomateak, hala nola “Atxurdi-
nen tomatea” eta “mojaren to-
matea”. Herrian espekulazio
ugari ziren tomatearen jato-
rriari buruz, batzuk zioten
Huescatik etorritako moja ba-
tek ekarri zituela, besteek
ezetz, Aramaiokoa zela moja
hura. Tomatearen jatorria zei-
nahi izan, Marc Badalen libu-
ruan aurkitzen da istorioaren
askaera. «Tomate honen buel-
tako mitoak desegin ditugu,
misterioa kendu diogu. Hori
pena bat da, baina gu oso po-
zik geratu gara», esan du libu-
ruaren egileak.

TOKIKO BARIETATEAREN DEFENTSA

«Tokiko barietateek zapore,
kolore, forma eta usain des-
berdinak dituzte. Tokiko bari-
tate batzuekin gertatzen da as-
kotan baratzean ez dutela
hainbeste ematen, baina Are-
txabaletako tomatea tokiko
barietateetatik gehien ematen
duena da. Gutxi-asko hibrido
bat bezala, pixka bat gutxiago,
baina antzera. Oso ekoizpen
ona dauka. Bestalde, kolorea
erakargarria du, arrosa-antze-
koa. Zapore aldetik oso gozoa
da, ez hain azidoa», esplikatu
du Badalek.

Tokiko barazkiek nekazari-
tza-industria intentsiboak
zanpatutako heterogeneotasu-
na dute altxor. Bestalde, hibri-
doen eta tokiko barazkien ar-
teko desberdintasun nagusia
hazietan datza. «Hibridoak ha-
ziak ez dira egonkorak, urte-
betez soilik erabil daitezke. Ez
du zentzurik hibridoak haziak
gordetzeak, eta horregatik me-
kanismo bat sortu da haziak
urtero erosteko», dio Badalek.
Kontrara, tokiko barietateen
haziak urtero gordetzen dira,
datorren uztan landatzeko.
Horrez gain, idazleak azaldu
du nekazaritza intentsiboan
badirela «arazo batzuk neka-



zaritza ekologikoan ikusten ez
direnak», zenbait izurrite, esa-
terako.

Merkatuak barazki hibridoe-
kin beteta egonagatik ere, kon-
sumitzaileek tokiko barietate-
ak estimatzen dituzte, eta,
Badalen esanetan, ekoizle in-
tentsiboak konturatu dira ho-
rretaz. «Ikusten ari gara Euskal
Herriko 40 barietate ingurure-
kin modelo intentsiboa jarri
dutela martxan. Tokiko bari-
tateak agroekologian ibiltzen
garenoi interesatzen zaizkigu,
baina, orain, ekoizle intentsi-
boak konturatu dira kontsu-
mitzaileak barietate horiek es-
katzen ari direla, eta hor ere
muturra sartzen ari dira».

Alta, zin egin gabe, Badalek
iritzi du Aretxabaletako toma-
tea industria handien eskueta-
tik salbu dagoela: «Barietate
bat lege saltzeko erregistratu-
ta egon behar da. Nafarroako
Intia elkarteak orain 15 urte
erregistratu zuen Aretxabale-
tako tomatea, beraz, pribatiza-
zio aldetik ez dago arriskurik.

Tomatea XIX.
mendearen erdialdetik
hasi zen ohiko samarra
izaten Europan. Hasiera
batean Euskal Herrian
gaztelauen eta ijitoen
jakitzat hartzen zen.
Gorka RUBIO | FOKU

Orain arte, tomate hau ekoizle
txikiek eta ekologikoek soilik
saldu dute, eta ez dut uste bat-
batean supermerkatuetara
sartuko denik. Superfizie han-
dian Almeriako tomateekin
jarraituko dute. Hala ere, ez
dakigu zer gertatuko den. Bio-
pirateria ere hor dago, baina
espero dut Aretxabaletako to-
matearekin horrelakorik ez
gertatzea».

LIBURUAREN UZTA

Hain da interesgarria Aretxa-
baletako tomatearen historia,
ezen bi kataluniar erakarri bai-

titu bere sustraietaraino. Mar-
ta Barba antropologiari buruz-
ko tesia ontzera ikuspuntu
biopolitikotik, eta Marc Badal
tomateari buruzko liburua
idaztera.

“Aretxabaletako tomatea” li-
burua salmenta gunen haue-
tan aurkitu daiteke oraingoz: Are-
txabaletako kultur etxean, Do-
nostiako Cristina Enea parke-
ko Ingurumen Baliabideen
Etxean, Donostiako Kaxilda li-
buru denda eta Iruñeko Kata-
kraken.

Tomate honen historian
parte hartu duten pertsona
eta elkarteei «omenaldi» txiki
bat da Badalen liburua, eta
«irakurterraza» dela aipatu
du. Aretxabaletako tomate-
aren historia Euskal Herriko la-
borarien historia ere bada, eta
mende luzez ahaztu den on-
darea berreskuratu du lan ho-
nek.

“Aretxabaletako tomatea” la-
naz gain, Marc Badal beste li-
buru bat aurkezten ari da: “Vi-
das a la intemperie”, Pepitas
de Cabalaza eta Cambalache
etxeek batera editatua. Liburu
horrek laborarien munduaren
galera du hizpide, zeina giza-
kiaren eskuetatik isilik urrun-
du baiten. Nekazaritzaren
hondamena berreskuratzeko
beharra aldarrikatzen du tes-
tuak, eta historia idatzi den
ikuspuntu hiritarraren ikuske-
ra zabaltzea proposatzen du.



**«Tokiko barietateek zapore, kolore, forma eta
usain desberdinak dituzte; batzuekin gertatzen
da askotan baratzean ez dutela hainbeste
ematen, baina Aretxabaletako tomateak bai»**

**«Orain arte tomate hau ekoizle txikiek eta
ekologikoek soilik saldu dute, eta ez dut uste
bat-batean supermerkatuetara sartuko denik.
Horiek Almeriako tomateekin jarraituko dute»**



Unai
ITURRIAGA

iRRITZIA:



UMEEN EUSKAL JAIA

Aro berriko bigarren jaialdia egingo da gaur Gasteizen Jare taldearen eskutik


 **KULTURA /** Xabier Izaga Gonzalez

Umeen euskal jaiak, Euskal Herriko hiri eta herrietako kale eta plazak dantzari txikiz betetzen zituztenak, 60ko hamarkadan hasi ziren, eta, frankismo ondorenerako, izugarri ugartu ziren. Zarautzen, 1964. urtean Euskal Astea sortu zen, irailaren 9ko Euskal Jaia Umeen Euskal Jaia lotu ziotenean, Manolo Urbietan, nola ez, sortzaileen artean zela. Hainbat lekutan ume dantzarien festa hori ospatzen jarraitzen dute, hala nola Sestaon, Mutrikun, Durangon... Hain zuzen ere, ezpata-dantzaren hiriburuan, 51. edizioa ospatu zuten iaz. Gasteizen ere duela ia bost hamarkada hasi zen Manuel Iradier Txangolari Elkartea Umeen Euskal Jaia antolatzen, baina 1975ekoa izan zen garai hartako azkena, besteak beste, 1976ko martxoaren 3ko sarraskiak eten zuelako.

Manuel Iradier Elkartean du egoitza Jare dantza taldeak, eta duela urte bi Hego Euskal Herriko bost dantza talde bildu eta Arabako hiriburuan Umeen Euskal Jaia berpizteko aukera aztertu zuen. Aukera hari heldu zion iaz.

“Haurrak ikas zazue” herri kantuen hitzak lelo hartuta, egitarau zabalago bat prestatu eta bigarren aroko Gasteizko lehen Umeen Euskal Jaia egin zuten Euskal Herri osoko bederatzi taldek. «Gasteizko azken Umeen Euskal Jaia ospatu zenean, duela zenbait hamarkada, hiri honetako haur gehien-gehienek ez zuten euskaraz ikasteko aukerarik. Gaur egun gehien-gehienek badakite euskaraz, batzuk pilotan ez dira makalak eta haietako asko dantzan ere trebeak dira, gaur erakutsiko duten bezala», zio-

Hainbat lekutan ospatzen duten Umeen Euskal Jaia Gasteizen ez zuten 1975. urtetik egiten. Iaz, Jare dantza taldeak, «aurrekoek utzitako kultur ondareak bizirik» dirauenez, aro berriko lehen edizioa antolatu zuen. Gaur da bigarrena, Arabako hiriburuko plazetan Euskal Herri osoko dantzari txikiak ikusteko aukera, alegia.



Aurtengo jaiaren kartela. Behean, iazko dantza erakustaldietako bat. GAUR8



ten jaiaren aurkezpenean. Eta aurreko belaunaldiek egin zuten lana aitortu zuten: «Urte asko joan dira, baina aurrekoek utzitako kultur ondareak bizirik dirau, laino guztien gainetik, sasi guztien azpitik».

ARO BERRIKO BIGARRENA

Gaur aro berriko bigarren Umeen Euskal Jaia ekingo diote, lehenengoaren espiritu berari eutsita: «Ordukoek oztopo handiak topatu zituzten, baina handiagoa zen euren gogo, ilusioa eta herri kulturarekiko maitasuna. Horixe da, besteak beste, haien ondarea, eta gogo, ilusio eta maitasun berberekin datoz ezinbestean dantzari gatzetxo hauek gaur euskal kulturaren jai honetara».

Goizean goiz, 10:30ean, talde guztiak Plaza Berrira bilduko dira, eta, hiriko plazetan zehar dantzatu ondoren, 13:00etan, denen alardea izango da Andre Maria Zuriaren plazan. Arratsaldean ere alardea egingo dute Foru plazan, 17:30en.

Arabako zortzi taldek parte hartuko dute: Gasteizko Adurtza, Udal Folklore Akademia, Indarra eta Jare, Lasarteko Olabide, Amurrioko Aiara, Zuiako Dantzariak eta Urkabustaizko Triskari. Horiekin batera, Gernikako Elai Alai, Pasai Antxoko Alkartasuna, Donibane Lohizuneko Begiraleak eta Orkoiengo Baietz taldea ere izango dira. Hori horrela, 350 ume inguru izango dira guztira Gasteizko plazetan saltoka eta sigi-sagaka beren konposizio koloretsuak erakusten.

Iazko Umeen Euskal Jaia izan zuen arrakastak ez zien zalantzarako tarterik utzi antolatzaileei eta argi zuten aurrera egin beharra zeukatela. «Bigarren honen arrakastak hirugarren bat antolatzera behartu gaitzala!», diote.

JAIETARA JOATEKO BUSA

Gazteak Arabako herrietako jaietara era seguruan eramaten ditu Jaibus Vitalak

Herrietako jaietara joatea ez da gauza erraza. Garraio publikorik ezean, alkohola edango ez duen gidaria aukeratu edo lo egiteko leku bat bilatu behar dute lagun taldeek. Araban, al-diz, gazteek, eta baita hain gazte ez direnek ere, beste aukera bat dute Vital Fundazioari esker: Jaibus Vital dauka izena eta hemeretzi urte daramatza arabarrei herrialdeko jaietara era seguruan joateko aukera eskaintzen.

«Udako jaietako programa-zio oparoak ibilgailuen etengabeko joan-etorria eragiten du Arabako herrien artean, batez ere gaueko orduetan. Joan-etorri horiek dakartzaten

 **JENDARTEA** / Ion Salgado

Jaibus Vital zerbitzuak 19 urte beteko ditu uda honetan, eta gazte arabarrei jaietara era seguruan joateko aukera eskaintzen jarraituko du. Gaurtik urrira bitartean Arabako 20 herritara joango den autobus flota zabala jarriko du errepidean Vital Fundazioak. Andre Maria Zuriaren jaietara, esaterako, ehunka gazte hurbilduko ditu.

arriskuak ekiditea da Vital Fundazioaren helburua, eta, horretarako, 15 urtetik gorako-ei gaueko aisialdiaz gozatzea eta etxera segurtasunez itzultzea ahalbidetzen dien aukera eskainiko diegu berriz», nabarmendu zuen fundazioak ekainaren 5an bidalitako oharrean.

Testu horretan Vital Fundazioak azaltzen duenez, gaurtik urriaren 6ra Jaibus Vital zerbitzuak 20 herritako jaietara joatea ahalbidetuko du, 41 ibilbide ezberdinekin. «Ibilbide horietako 36k lurraldeko 19 herritako jaietara eramango dituzte gazteak, eta, gainerako

Gasteizko jaietan Arabako ehunka gazte hurbiltzen dira hiriburura Jaibus Vital zerbitzuari esker.
Juanan RUIZ | FOKU

bostek, Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaietako ospakizunetara hurbilduko dituzte gazteak, abuztuaren 4an».

Arabako herritara joango diren autobusak 23.30ean abiatuko dira ibilbideko lehendabiziko geltokitik. Itzulerarako, berriz, erabiltzaileek bi aukera izango dituzte: 03.30ean edo 06.00etan. Gainera, herri batzuetan, ordutegi bereziak izango dituzte, bai joateko, bai itzultzeko. Beste alde batetik, Gasteizko jaietarako zerbitzua 22.30ean aterako da abiapuntu diren herrietarik, eta, itzulera, 07.30ean abiatuko da Arabako hiriburutik.

Autobus Txartelen erreserba www.fundacionvital.eus webgunearen bidez egin daiteke. Izena emateko aukera irteera bakoitzaren aurreko eguneko 13.00ak arte izango da zabalik, Gasteizko jaietarako izan ezik. Hitzordu horretarako autobus plazak abuztuaren 2ko 19.00ak arte erreserbatu ahal izango dira. Zabalik dago jada ekainean eta uztailean egingo diren ibilbideetarako izena emateko aukera.

Izen emate horiek pertsonalak eta besterenezinak dira, izan ere, zerbitzuko arduradunek bidaiariaren identitatea egiaztatuko dute. «Hortaz, ezinbestekoa da identifikazio txartel bat aldean eramatea, baita ordainagiria ere». Joan-etorriko txartelak 3 euroko prezioa du.

GERO ETA ERABILTZAILE GEHIAGO

Mikel Perez Vital Fundazioko kideak dioenez, gero eta erabiltzaile gehiago ditu Jaibus Vital zerbitzuak. «Duela zortzi urte behera egin zuen erabiltzaile kopuruak, baina ordutik etengabe egin du gora, eta gero eta gazte gehiagok erabiltzen dute Jaibus Vitala herrie-





tako jaietara joateko», nabar-mendu du. Herri batzuetako jaietan hiru autobus ere jar-tzen dituztela azaldu du. Agu-rain, Kanpezu eta Añanako jaiak, esaterako, oso arrakasta-tsua dira.

Dena den, noski, jende gehien mugitzen duten jaiak

Gasteizkoak dira inolako za-lantzarik gabe. Perezek azaldu duenez, pasa den urtean 800 gaztek hartu zuten Jaibus Vita-la Arabako hiriburura joateko Andre Maria Zuriaren jaietan. Abuztuaren 4an hamabost au-tobus jarri zituzten Arabako leku ezberdinetatik. Aurten

ere antzeko datuak errepika-tzea espero dute, izan ere, Ze-ledon abuztuaren lehenengo asteburuan jaitsiko da San Mi-geleko dorretik. Halaber, aur-tengoan Gasteizko bizilagunek ere hartu ahal izango dute Jai-bus Vitala Murgia, Agurain eta Kanpezuko jaietara joateko.

Jaibus Vital zerbitzuak Arabako jaietara joateko aukera segurua eskaintzen die gazteei.
VITAL FUNDAZIOA

Hilabete honetako ibilbideei dagokionez, gaur autobusa Agurainetik Ozetara joango da, eta, datorren astean, Guar-diako jaietara hurbilduko ditu Arabako Errioxako gazteak. Hi-lak 30ean, Dulantzi eta Agu-raingo bizilagunek erabili ahal izango dute Araiara joateko.

In(justizia)

**Miren Azkarate
Badiola**

Euskal herritarren edo behintzat bertako sektore baten elkartasun eta duintasun maila handia dela ondo jakin dut betidanik. Bidaie-tarako gidari bat? Hortxe hamaika bolun-tario. Dirua behar duzula? Ahal dudana emango dizut eta bestea eskatuko dugu edo antolatuko dugu zerbait lortzeko. Kartelak pegatu? Goazen. Bazkari bat an-tolatu nahi dugula? Ni prest zerbitzatze-ko. Eta ez bakarrik gatazkaren inguruko borroketan, berdin nazioarteko arazoe-tan, ekologisten deialdietan... Azken fine-an, behar ezberdinen aurrean laguntza

eman dugun herri bat gara (berriz diot: sektore bat bederen).

Berriz erakutsi dugu “Altsasuko auzia” bezala ezaguna egin den kasuarekin. Es-painiako Erreinuak berriz ere erakutsi di-gu –azkenaldian Espainiako hainbat le-kutan ohartzen ari dira hemen aspaldi genekiena– guretzako justizia ez dela existitzen: liskar batengatik gazte ba-tzuei 13 urteko espetxe zigorra. Baina ho-rretaz dena edo asko esana dagoenez, nik gaurkoan horren aurrean emandako erantzuna azpimarratu nahiko nuke. Ha-siera-hasieratik gazte hauen gurasoek

egin dutena, Altsasuko herritarrek egin-dakoa eta ondoren Euskal Herri osoaren erantzuna eta baita hemendik kanpo era-kutsitakoa, horiek ez badira elkartasuna eta duintasuna...

Gaur berriro erakutsiko dugu Iruñeko kaleak beteaz. In(justiziaren) aurrean oihu egingo dugu: «Altsasukoak aske!». Ez dugu justiziarik lortuko, euskaldu-nentzat ez baitago Espainiako Erreinu-an, baina harro gaude garenaz eta gazte hauei, haien gurasoei, Altsasuko herriari eta edozeini erakutsiko diegu ez daudela bakarrik. •